

Ekintza kolektiboa euskal protesta-zikloan: «Lizarra-Garazi» ko kasuaren azterketa (1995-2000)

Galder Sierra Zapirain
UPV/EHUko irakaslea

Aldaketa-prozesuak protesta-mugimenduen ekintza kolektiboari lotuta agertu ohi dira. Gure aztergaiari dagokionez, 1990eko hamarkadaren bigarren erdialdean euskal protesta-zikloaren areagotze nabarmena gertatu zen, autoritateen eta lehiatzaileen arteko ekintza kolektiboa zabalduz. Artikulu honen helburua da areagotze horretan parte hartu zuten gertakariak eta haien ondorioak azaltzea. Horretarako, gatazka konplexuen ikerketetan Doug McAdamek, Sidney Tarrowek eta Charles Tillyk baliatutako mekanismo eta prozesuak erabiliko ditugu. Zentzu horretan, liskarraldi mota ezberdinetan parte hartzen duten bitarteko horiek Lizarra-Garaziko Akordioak ezaugarritu zuen epealdian (1995-2000) ere funtsezko papera jokatu zutela ikusi ahal izango dugu; bai ekintza kolektiboaren garapenean, bai politika instituzionaletan emandako aldaketetan. Aldaketa horiek, ordea, mugatuak izan ziren, eta inplikaturako eragileek eraldaketa-prozesuak ulertzeko baliatu zituzten paradigma ezberdinetan arki dezakegu haien ezintasun nagusietako bat.

GAKO-HITZAK: Politika liskartsua · Demokratizazioa · Burujabetza · Protesta-zikloa.

Collective action in the basque protest cycle: An analysis of the «Lizarra-Garazi» case (1995-2000)

Processes of change usually appear to be linked with the development of collective action in protest movements. As far as our object of study is concerned, the Basque protest cycle heightened considerably in the second half of the 1990s, with collective action spreading among the authorities and parties to the conflict. The aim of this article is to explain the events that were involved in such a spread and their consequences. To this end, we will use the mechanisms and processes employed by Doug McAdam, Sidney Tarrow and Charles Tilly in the study of complex conflicts. In this regard, we will see how such resources involved in different types of conflicts played a crucial role in the phase characterised by the Lizarra-Garazi Agreement (1995-2000), both in the development of collective action and the changes wrought to institutional policies. However, the changes brought about were limited. The different paradigms used to understand the processes of transformation by the stakeholders involved would constitute one of the primary causes for this.

KEY WORDS: Contentious politics · Democratization · Sovereignty · Protest cycle.

<https://doi.org/10.26876/uztaro.120.2022.9>

Jasotze-data: 2020-12-07

Onartze-data: 2021-03-29

1. Sarrera

Prozesu nazionalistak dinamika liskartsuarekin batera garatzen diren fenomenoak izaten dira. Haien azterketa, aldiz, nazionalismoen inguruko eskolen esku edota gai soziologikoen ikerketara dedikatutako diziplinen menpe gelditu izan da, eta batzuek zein besteek beren analisi integralerako hainbat muga erakutsi dituzte. Lehenengoek, nazionalismoak bestelako aldaketa-prozesu orokorretatik (iraultzak, demokratizazioak...) bereziz, hauekin dituzten antzekotasunak alboratu eta bertan jazotako gertaerak nazionalismoetan emandako *berezko* fenomenotzat hartu izan dituztelako. Bigarrenengoak, berriz, politika arautuaren eta arautu gabekoaren arteko banaketa klasikoa ardatz hartuta, fenomeno liskartsuek politika instituzionaletan (hauteskundeak, gobernu-osaketak...) duten eragina beren azterketatik kanpo uzteko joera erakutsi dutelako.

Ikuspegi tradizional hauek indarra galdu eta prozesu nazionalistak joera konstruktibistatik landu duten eskolak indarra hartzen joan dira azken urteetan. Horrela, nazionalismoen azterketetan nagusitu izan den «muturreko epistemologia errealista» (Maíz, 2007: 9) bigarren maila batean gelditu eta nazionalismoa borondate kolektibo baten eraikuntzaren terminoetan ulertzen joan da. Ibarrek (2004: 58) ohartarazi bezala, berriz, nazionalismoa eta nortasun kolektibo nazionala ez dira gauza berbera izango. Bigarrena era natural eta ordenatu batean bizi ahal izango da; bestelako gatazkarik gabe barneratzen den zerbait bezala. Nazionalismoak, aldiz, ekintzara bultzatzen du. Puntu honetan dinamika sozialaren ikerketara dedikatutako diziplinek garrantzi berezia hartuko dute. Baina tradizionalki mobilizazio-dinamika soziologoek esku eta politika arautua Zientzia Politikoaren menpe uzten zuen logika alboratu eta ekintza liskartsua politika instituzionalarekin integratu duen ikusmolde berria nagusitzen joan da. Ikuspegi berritzaile horri helduko diogu hurrengo lerroetan.


Lizarra-Garaziko Akordioa euskal abertzaletasunaren iruditerian ikur nagusietako bat bezala iltzatuta gelditu bada ere, gure abiapuntua da autogobernuan edo burujabetzan aurrera egiteko ordura arte indarrean egondako bi estrategia nagusien mugek onorio zuzena izan zela: batetik, eskuduntzen eskualdatzearen aldarrikapenera mugatzen zen autonomismoarena; eta bestetik, sistemarekiko haustura egikaritu nahi zuen estrategia matxinoarena. Baina baita horiei lotuta bakegintzan aurrera egiteko baliatutako estrategia ezberdinena ere. Jarraian aztertuko dugun bezala, gure ustez 90eko hamarkadaren bigarren erdialdean emandako protestaldiaren hazkundeak bilakaera horretan zeresan zuzena izan zuen, eta horrelako goraldietan parte hartu ohi duten mekanismo eta prozesuek ere zerikusi zuzena izan zuten. Ekintza kolektiboan ez ezik, hazkunde horrek politika instituzionaletan ere izan zituen eragin nagusiak aztertuko ditugu: sistematik «kanpo» kokatutako eragileen barneratze mugatua edota erakundeetako koalizioen berrosatzea, esaterako. Azkenik, euskal protestaldiaren pasarte horren gainbeheraren arrazoiak azaltzen saiatuko gara, arreta nagusia aldaketa bera gauzatzeko inplikaturako sektoreek baliatutako eredu ezberdinetan jarriz.

Horretarako, artikulu honen lehen partean, baliatu dugun metodologiaren nondik norakoak azalduko ditugu. Ondoren, gure aztergaiaren kokapen laburra egingo dugu, zentzu bikoitzean: batetik, protesta-ziklo osoaren kokapenari dagokionez, eta

bestetik, 1990eko hamarkadaren lehen erdialdeko aurrekari zuzenei dagokienez. Artikuluaren atal nagusia liskarraldiaren areagotze horretan parte hartu zuten prozesu eta mekanismoen azalpenean datza. Bukatzeko, emandako bilakaeraren arrazoi nagusiak eta haien ondorioak laburbiltzen saiatuko gara.

2. Azterketarako metodo bat: mekanismoak eta prozesuak

Ekintza kolektiboaren azterketak garapen handia ezagutu du azken urte luzeetan. 1970eko eta 1980ko hamarkadetan nagusitutako eskola analitikoaren arreta, esaterako, mugimendu sozialen *barne*-bitartekoetan (Mobilizaziorako Baliabideen Teoria) edota *kanpoko* aldagai kulturaletan (Gizarte Mugimenduen Antolaketa) banatua zegoen. 1990eko hamarkadatik aurrera garatutako sintesiaren aldeko jarrerak bi korrante horietatik eratortzen ziren oinarritzko lau atalen arabera *agenda klasikoa* nagusitu zuen (Diani eta Della Porta, 2011): a) mugimenduari irekitzen zaizkion *aukera eta mehatxuen* azterketa, b) mugimenduak protestarako baliatuko dituen *ekintza motak*, c) gertaeren interpretaziorako *marko diskurtsiboak*, eta d) mugimenduak eskura izango dituen *mobilizaziorako egiturak*.



1. irudia. Ekintza kolektiboaren azterketarako *agenda klasikoa* (MTT, 2005: 19).

Labur esanda, agenda klasiko honek planteatuko duen hautu metodologikoa jardueraren aldagaiak (irudiaren laukitxoak) analitikoki bereizi eta ondoren haien arteko harremana aztertzea izango da. Eredu hau norbanako aktoreen azterketarako baliagarria suertatu bazen ere, elkarri eragiten dioten eragile multzoak inplikaturik

dauden gatazka konplexuetan ez du eraginkortasun berdina erakutsiko. Gainera, laukien artean oso ondo zehaztu gabeko kausa-efektu harremanak bilatu nahian, gatazkaren irudi estatikoak eskaini ohi ditu. Hau da, oldarraldien sorrera azaldu nahian, haien elkarreraginezko bilakaeraren azterketa baztertu du.

Mende-aldaketarekin batera, ekintza kolektiboaren azterketari bestelako dinamismo bat eman nahian, Doug McAdam, Sidney Tarrow eta Charles Tillyk (MTT hemendik aurrera) ordura arteko azterketa-ildoak gaindituko zituen zeharlerroko ikuspegia eskaini nahi izan zuten, era oso ezberdinetako fenomeno sozialetan parte hartzen duten gertaerak identifikatuz; politika arautuan antolatzen diren hauteskundeetan ematen diren etik hasita, politika hausturazalean gerta daitezkeen gerrate zibiletan amaitzen diren etara, esaterako. Horren prozesu ezberdinetan gertatzen diren gertaera sozialen arteko loturak azaltzeko *mekanismo*, *prozesu* eta *liskarraldietan* oinarritutako *agenda berria* deitua izan dena proposatu zuten. Mekanismoak «egoera ezberdinetan taldeen arteko harremanak antzeko eran aldatzen dituzten gertaera mota zehatzak» liriateke. Hiru multzotan banatuko dituzte: a) kanpo-aldagaien ondorioz bizitza sozialean eragina duten *inguruabarreko* mekanismoak, b) norbanako edo taldeen hautematean eragiten duten mekanismo *kognitiboak*, eta c) norbanako, talde edo sare sozialen arteko loturak aldarazten dituzten *harremanezko* mekanismoak. Prozesuak, berriz, «antzeko eraldaketak eragiten dituzten mekanismo hauen sekuentzia erregularrak» edo kateaketak liriateke. Liskarraldia areagotzen denean presente egon ohi diren hiru prozesu nabarmenduko dituzte: a) eskala-aldaketa, b) aktore-osaketa eta c) polarizazioa. Eta azkenik, liskarraldiak, «eskaera kolektiboak barnebiltzen dituzten gatazka-korronte iraunkorrak» liriateke (MTT, 2005: 26), iraupen luzeko hiru liskarraldi mota ezberdindu: a) iraultzak, b) nazionalismoak eta c) demokratizazioak. Euskal protesta-zikloa azken hiru horien argitan begitatu dute zenbait eragilek, eta, ikusiko dugun bezala, horren inguruko ikuspegi bateratu baten falta gure aztergaia den atalaren gainbehera azaltzeko arrazoia ere izango da.

Errusiar panpinen moduan, batak bestea barnebiltzen duen eredu teoriko-metodologiko honek, ordea, hainbat gabezia erakutsi ditu. Hiru lerro nabarmendu ditzakegu. Lehenengoa agenda klasikotik urruntzeko saiakera da. Izan ere, hainbat autoreren ustez (Diani, 2003: 111; Koopmans, 2003...), ekintza kolektiboaren azterketan ez zegoen ezer hiztegi kontzeptual berri baten elaborazioa eskatzen zuenik, eta jada indarrean zeuden kategorien aplikazio dinamikoago batekin nahiko izango litzateke¹. Bigarren kritika-lerroa liskarraldien ikuspegi murrizari lotua legoke, mugimendu sozialen arretagune nagusia autoritate baten gain kokatzen duelako, mugimenduen identitatea edota barne-balioak bezalako prozesu kulturalen garrantzia alboratuz (Taylor, 2003). Eta hirugarrenak, mekanismo eta prozesuen kategoriarri erreferentzia egingo lioke. Izan ere, mekanismoen zerrenda luzea (Koopmans, 2003²) eta haien eta prozesuen arteko banaketa teoriko arbitrarioaren salaketaz gain (Taylor, 2003; Oliver, 2003), haren azalpen kausalerako gaitasuna ere zalantzan

1. Inguruabarreko mekanismoak, esaterako, agenda klasikoak jasotzen duen aukera eta mehatxuen egituratik ez leudeke horren urruti; mekanismo kognitiboak markoztatetik ez dauden bezala.

2. Koopmans-ek berrogeita lau zenbatuko ditu *Dynamic of Contention* (2001) lanean. Horrek *ad hoc* egindako mekanismoen sentsazioa areagotzeaz gain, haien sailkatze eta ordenatzea nabarmen zailtzen du, batzuei edo besteei garrantzia zergatik ematen zaien behar bezala argitu gabe.

jartzera joko da. Zentzu horretan, Rutchek (2003: 115), hainbatetan MTTren azken helburua azalpen kausalak eman nahi izatea izango dela nabarmenduko badu ere, beste hainbatetan, asmo horiek apaldu eta gertaeren arteko paralelismo partzialak eta prozesu kausal errepikakorrek identifikatzera mugatuko direla salatuko du.

Gabeziak gabezia, nabarmendu behar da MTTren ekarpenak agenda klasikoaren hainbat estatusun gainditzen lagundu duela. Lehenik, aurreko mendearen bukaeran mugimendu sozial berriekiko gehiegizko arreta gainditzeko ahalegina egin (McAdam, 2003: 128) eta araututako zein arautu gabeko politikan parte hartzen duten mekanismo komunak identifikatuko dituztelako (McAdam eta Tarrow, 2011). Bigarrenik, liskarraldiaren sorreran ez ezik, garapenean ere parte hartzen duten gertaerak azaltzen laguntzen dutelako, agenda berri honen izaera dinamikoa nabarmenduz. Eta hirugarrenik, mundu sozialean azaleratu gabe dauden eta errepikakorrek diren ezaugarri eta harremanak mahaigaineratu eta zer testuingurutan aplikagarriak diren ulertzeko metodoa eskaintzen dutelako (Tarrow, 2003: 137).

Alde horretatik, MTTk proposatutako *mekanismo* eta *prozesuek* tresneria teoriko eraginkorra eskaintzen digute aukeratu dugun erreferentziazko epealdian emandako aldaketak aztertzeko. Tresna horien inplementaziorako gure estrategia metodologikoa gertaera liskartsu horren azterketa deskriptiboa izango da. Horretarako, liskarraldi horretan parte hartu duten prozesu sendoen azalpena egingo dugu (eskala-aldaketa, aktore-osaketa eta polarizazioa), horien aktibazioan mekanismo zehatzek jokaturako papera aztertuz. Era horretan, mekanismo eta prozesuen kateaketa kausala ikertuko dugu, egoera ezberdinetan antzeko emaitzak sortzen dituzten fenomenoen lotura bezala ulertuta. Hainbat kasutan, azterketa kuantitatiboaren ikuspegitik metodologia honek izan ditzakeen gabeziak arintzeko (McAdam, 2003: 133; McAdam eta Tarrow, 2011: 5)³, datu zehatzetan oinarrituta neurketak baliatuko ditugu; mobilizazioen edota protesta-ekimenen neurketari dagozkionak, esaterako.

2. Aztertuko dugun pasartearen kokagunea: euskal protesta-zikloa

Protesta-zikloa parabola forma hartu ohi duen «gatazken eta konfrontazio sozialearen areagotze fase» bezala ezaugarritu ohi da (Tarrow, 1997: 264). Protestaldiaren abiatzean *ekintzaile goiztiarrek* garrantzi berezia izango dute, momentuko aukera politikoak baliatzen jakingo duten aitzindari bezala (McAdam, 2002: 245). Zentzu horretan, ETA frankismoaren bigarren erdialdean ireki zen *aukera-leiho*a baliatu zuen *mugimendu goiztiar* bezala identifika dezakegu, gure historia garaikidearen protesta-zikloari bide eman ziona. Erbestean deserriratutako EAJren zuzendaritzaren eragiteko gaitasun mugatuak (Díez, 1999; Pérez-Agote, 1984; Gurrutxaga, 1985), hurrengo urteetan langile-mugimenduak ezagututako bultzadak (Ibarra 1987; Letamendia 1994) edota nazioarteko testuinguruan deskolonizazio-prozesuei lotuta emandako giro iraultzailearen zabalpenak (Letamendia, 1994; 1997) osatu zituzten leiho horren aukera nagusiak. Alde horretatik, frankismoaren azken

3. Izan ere, ikerketa kualitatiboak hipotesiak formulatzeko bide arakatzaille gisa hartuak izan arren, ondoren teknika kuantitatiboekin neurtuak izatea komenigarria da. Aldi berean, analisi kuantitatiboa harreman enpirikoak azalarazteko balia daiteke, gerora sakonago azter daitezkeenak metodo kualitatiboak erabiliz.

urteak protestaren *zabalpena eta indartzea* (Tarrow, 1997) ezaugarritu ohi duten gertaerek baldintzatuak egon ziren gurean: lehiarako erreperitorioaren ugaritzea eta erradikalizatzea («ekintza-errepresioa-ekintza» espirala), marko sinboliko berrien sorrera («euskal herri langilea» —‘pueblo trabajador vasco’—) edota haien mugimendu «deribatu»en eraketa, esaterako.

Zentzu horretan, Trantsizioak definitutako sistema politiko berriak bururaino eramane gabe utzitako erronken artean, periferietako autogobernuen garapena (bereziki, euskal autogobernuarena) eta sistema politiko berriaren legitimitatea ukatzen zuen sektore politiko nagusiaren (Euskal Nazio Askapenerako Mugimendua —ENAM—) indargabetzea nabarmendu ziren frankismoaren osteko lehen urteetan. Lehenengoari dagokionez, 1980ko hamarkadan zehar Gernikako Estatutuak jasotako eskuduntzen eskualdatzearen bitartez euskal autogobernuak ezagututako garapenaren ondoren, geldialdi nabarmena ezagutu zuen 1990eko hamarkadaren lehen urteetan, PSOEek eta PPK bultzatutako Paktu Autonomikoen testuinguruan. Bigarrenari dagokionez, ETaren eta Espainiako Gobernuaren artean Aljerren egiten ari ziren elkarrizketen bezperetan sinatutako Ajuriaeneko Itunak bide eman zion ETarekin bukatu eta ENAMen inguruan gorpuztutako «disidentzia» indargabetzeko «irrotasunaren estrategia»ri; betiere, alderdi sinatzaileek Estatutuaren garapena bururaino eramateko konpromisoa hartuz.

2.1. 1990eko hamarkadaren lehen erdialdearen zertzelada batzuk

1990eko hamarkadaren hasierak utzitako argazkiak⁴ Trantsizioan finkatutako sistemapolitikoarenegonkortzeamarratzen zuen. Ordurako hipotesi hausturazalearen aukerak ageriko agorpen-zantzuak erakutsi zituen, sistemaren aldaketarako a) *aukera politikoen egitura* nabarmen ahulduz⁵. Erregimen-aldaketak deszentralizazio-maila bat onartu zuen Autonomien Estatu bati bide eman zion (*erakundeen egitura*). Tillyren (2010: 48) kategoriak baliatuta, Estatuko zein autonomia-erkidegoko instituzioak *gaitasun altuko sistema demokratikoe*k finkatutako ereduetatik geroz eta gertuago zeuden, haien jardunek «bitarteko, ekintza eta pertsonen arteko harremanetan» eragiteko gaitasun handia erakusten zuten heinean. Deszentralizazio-prozesua, berriz, hiru *kultura politiko* nagusien⁶ arteko lehiak gidatu zuen: sistemaren erdigunea osatu eta botere politikoaren banaketaren arduraduna den *nazionalismo zentralista*; zentroarekiko leialtasuna erakutsi baina autogobernuan sakondu nahi izango duen *nazionalismo sistemikoa*; eta logika berri bat ezarri nahi izango duen *nazionalismo hausturazalea* bezala izenda daitekeena (Letamendia, 1997). Hiru horien arteko harremanak Ajuriaeneko Itunak finkatutako *aliantza- eta aurkaritza-sisteman* forma hartu zuen, ezker abertzalearen zokoratze instituzionalari bide emanez. Itunak funtzio

4. Argazki honen azalpenerako gorago azaldutako agenda klasikoaren lau atalak baliatuko ditugu (aukera politikoen egitura, protestarako bitartekoak, markoak eta antolaketa), tresna honek gerora eman zen protestaldiaren susperraldiaren abiapuntua ulertzeko bitartekoak eskaintzen dizkigun neurrian.

5. Diani eta Della Portak (2011) *aukera politikoen egitura* osatzen duten aldagai *egonkorrez* eta *aldakorrez* hitz egingo dute. Lehenengoan artean *erakundeen egitura* eta *kultura politiko*a bezalako aldagaiak kokatuko dituzte; bigarrenengan *aliantza- eta aurkaritza-egiturak*.

6. Kultura politikoaz hitz egiteko orduan, ekintza kolektiboaren arauak baldintzatzen dituzten marko kultural edo mundu-ikuskerez ariko gara. Alde horretatik, kultura politiko eta alderdi politikoen arteko mugak ez genituzke parekatu behar.

legitimatzailea betetzen zuen zentzu bikoitzean: batetik, hamar urte lehenago abian jarritako sistema politikoaren zilegitasuna hiru euskal lurraldeetan berresten zuelako, ENAMen Trantsizioaren diskurtso deslegitimatzailea indar politikoen gehiengoaren presentziarekin indargabetu nahi zuen heinean; eta bestetik, 1980ko hamarkadaren bukaeran Aljerren PSOEn gobernua eta ETAn artean egiten ari ziren elkarrizketetan lehenengoari babesa eman eta gainontzeko alderdiek horietaz egin zezaketen erabilera alderdikoia ekiditeko funtzioa bete zuelako. Lehen urte horietan sinatzaileen arteko adostasuna, ordea, ez zen erabatekoa izan. Deslerrotze hauek nagusiki Leitzarango autobidearen eraikuntzan sortutako gatazkaren (Zubiaga, 2008) eta udal-mailan HBrekiko elkarlanik ez gauzatzeko hartutako erabakiaren inguruan eman ziren⁷. Eliteen arteko pitzadura hauek, aldiz, aldakorak izan ziren, ETAn jardun armatuaren areagotzeak itunkideen arteko kontraesanak apaldu ohi zituelako, hauek birlerrotoz.

Zentzu horretan, euskal gatazkak ezagutu zuen b) *protestarako bitartekoen* erradikalizazioak (sortutako eztabaida etiko-moralaz harago) estrategia osoaren garapena nabarmen baldintzatu zuen. Izan ere, mugimenduak protestarako erreperitorioaren dimentsio ezberdinak era eraginkorrean bildu beharko ditu arrakastatsua izan nahi badu (Della Porta eta Diani, 2011). Horrela, Estatua negoziatziora behartzeko bultzatutako *kaltearen logika*, bildu nahi den jende *kopuruaren* edo *konbentzimenduaren logikarekin* elkarrekin bizitzeko egindako apustu bideragaitzak ezker abertzalearen babes sozialaren galera mailakatua ekarri zuen, 1980ko hamarkadaren bukaeratik HBk lortutako hauteskunde-emaizten beherako joerak adierazten zuen bezala.

Egoera horretan, Ajuriaeneko Mahaiak «demokrata eta biolento»-en c) *markoa* nagusitzeko apustuari heldu zion. Marko diskurtsibo edo *frame*-ek errealitatea interpretatzeko ikuspegia eskaintzea helburu duten neurrian, gertaera sozial eta politikoei sortutako ziurgabetasunari heldulekua eman nahi izango diote (Goffman, 1974). Zentzu horretan, Itunak errealitate politikoaren interpretaziorako *marko nagusi* (*master frame*) bat eskaini nahi zion euskal jendarteari, gatazkaren erantzukizuna ENAMen bizkarretan utzi. Horretarako, markoen lerrotzean ohikoak izaten diren mekanismo diskurtsiboak topa daitezke (Snow eta Benford, 1986): terrorismoaren aurkako markoa agenda politikoaren lehen lerroan kokatu zen (*anplifikazioa*), terrorismoaren ardura, erakunde armatutik harago, bere «ingurune»-ra zabalduz⁸ (*hedatzea*); funtsean, eztabaida politikoaren markogintzaren ikuspegitik, borroka antifrankistaren garaietatik indarrean zen «erresistentzia»-rako markoaren oihartzuna *eralditzea* indar sistemikoen azken helburua bihurtu zen.

7. Udalen eremuan Itunaren sinatzaileen deslerrotzea eragin zuten bi kasuez ari gara, bietan Eusko Alkartasunak bide dibergentea hartu zuelarik: batetik, HBk independentziaren alde aurkeztutako mozioetan Garaikoetxearen alderdiak hainbat udaletan alde bozkatu, lehenengoan zokoratze instituzionala ekidin zuen; eta bestetik, 1991ko udal-hauteskundeak egin eta gero, HBk gehiengoa lortu zuen udalerrietan bere alkatetza eragozteko Ajuriaeneko Mahaiak adostutako irizpidetik ere aldendu zen, hainbat herritan HBren hautagaiari bide emanez.

8. Hainbat kasutan markogintzaren agenteentzat itxuraz beren helburuekiko bigarren mailakoak izan daitezkeen bestelako eskaera edo hartzaileetara zabalduko dituzte haren mezuak (Snow eta Benford, 1986: 471-474). Horrela, Itunaren hasierako komunikatuetan ETA eta bere ekintzak markogintzaren hartzaile nagusiak baziren ere, jopuntua zabalitzen joan zen eta HB, KAS eta bestelako antolakunde zibilak erantzule politikitat hartu zituzten.

Baina garai hartan autoritatea lehiatu zuen protesta-mugimendua (zentzurik zabalenean) hori baino *zerbait* gehiago izan zen. d) *Antolaketa-ereduari* dagokionez, protestan diharduen *sarearen* eta *antolakundearen* artean ezberdinu beharko dugu (Della Porta eta Diani, 2011). Bereizketa hori bakoitzaren egonkortasun-mailaren arabera izango da, hainbatetan bata eta bestea bereiztea zaila izan badaiteke ere. Della Porta eta Rucht (1995) planteatutako *mugimenduen familiak* ezagarritu dezake gurean emandako ereduak. Horren arabera, mugimenduek helburu espezifiko eta lehiarako esparru ezberdinak izanda ere, mundu-ikuskera bat konpartitu, antolaketa teilekatu eta hainbatetan dinamika ezberdinetarako aliatzen diren mugimenduen antolaketa osatuko lukete. Adiera horrek, aldiz, ez du familiarren barne-egoera adeitsua dela ulertzera eraman behar. 1992ko *gertakarien*⁹ osteko berrantolaketa betean, ezker abertzaleak, bere eragin-eremua ahalik eta gehien zabaltzeko nahi duen mugimendu bezala, bere jarduna maila instituzionalean indartzearekin batera¹⁰, mugimendu sozialekin «kolaborazioa eta autonomia» uztartuko lukeen ereduaren alde egin zuen¹¹. Urte batzuk geroago egindako balantzean jaso bezala, aldiz, «tresna organizatiboen berrantolaketa borroka armatuak zabaltzen zituen espazioak sostengatzera» bideratu zen nagusiki, ekimen politikoa bestelako eremuetara zabaltzea baldintzatuz¹².

3. Ekintza kolektiboa 1990eko hamarkadaren bigarren erdialdean

3.1. Liskarraldiaren eskala-aldaketa: protestaren difusioa eta ELA-LAB artekaritza


Pentsa zitekeenaren kontra, hurrengo urteetan euskal protestaldiak autoritate eta lehiatzaileen arteko ekintza kolektiboaren gorakada nabarmena ezagutu zuen. *Eskala-aldaketa*, gatazka orokortuago batera eramaten duen ekintza liskartsuen zabalpena bezala (MTT, 2005: 367), bi mekanismoren bidez gorpuztu ohi da: *difusioa* eta *artekaritza*. Gure kasuan, nagusiki protestaren difusioaren bidez eta ELA eta LABek jokatzen hasitako artekaritzaren eskutik forma hartu zuen. Protestaldiaren difusio horren erakusletzat hiru adierazle hartuko ditugu: mobilizazio kopuru orokorra, errepresioari lotutako mobilizazioak eta kale-erasoak edo sabotajeak.

9. 1992a urte konplikatuak izan zen ezker abertzalearentzat. Aljerreko elkarriketak apurtuta, Bartzelonako Joko Olinpikoek eta Sevillako Erakusketa Unibertsalak (*Expo*-ak) Espainia nazioarteko erakuslehoan jarriko zutelako baliatuz, 1991n zehar ETaren ofentsiba militarra areagotu zen (hamarkada horretan eragindako hildako kopuru handienarekin). Urte berria hasi eta hiru hilabetera, aldiz, ETaren zuzendaritza atxilotzeko Bidarteko polizia-operazio entzutetsua egin zen, eta haren etorkizunaren inguruko zalantzak zabaldu ziren (Casanova, 2008: 369-370).

10. *Urrats Berri* (1991) prozesuko ponentzietan jasotzen zenaren arabera, askotan HBren instituzioetako «parte hartze «ez-normalizatua» instituzioak gutxiestearekin nahastu izan» baitzen.

11. Izan ere, HBrentzat «elementu kezkarrienetako bat hainbat borroka zehatzetan ematen zen zatiketa eta banaketa» zen. Hau guztia ikuspegi autokritiko batetik egin zuen; batetik, «beste hainbat taldearekin izandako ika-mika antzuegatik»; eta bestetik, «mugimenduak eta beraien eskaerak bultzatzeko izandako inplikazio faltagatik» (*Urrats Berri*, 1991).

12. KAS (1994): *Txinaurri* txostena.



2. irudia. Eskala-aldaketa adierazten duten hainbat aldagai. Iturria: Barne Ministerioa eta *Egin* egunkaria.

Grafikoan ikus daitekeen bezala, aipatutako hiru aldagaien gorako joera antzeman daiteke hamarkadaren lehen urteetatik 1998ra bitarte¹³. ETAre su-etena tarteko, azken urte horretan egondako beheraldiaren ondoren, mobilizazio kopuruaren oso hazkunde baxua egon zen, Lizarra-Garaziko Akordioaren sinatzaileen arteko elkarlanak iraun zuen bitartean, hain zuzen¹⁴. 2000. urtean, su-etenenaren apurketarekin batera, gorakada nabarmen berri bat gertatu zen hiru aldagaietan. Bilakaera hori azaltzen duten *mobilizazioen garapenari* lotutako mekanismoen artean, bi nabarmenduko ditugu. Batetik, *aukera eta mehatxuen hautematea*. 1992ko krisialdiaren ondorioz, protestaldietan nagusitzen den autoritate eta lehiatzaileen arteko gatazka ohiko mugetatik harago (Gobernua vs ETA) zabaltzeko beharra agerikoa egin zitzaion ENAMi. Bigarrenik, eta aurrekoari lotuta, gatazkaren terminoak eraldatuko zituen «nazio-eraikuntza»ri lotutako *markogintza* eraberritua baliatu zen (Sierra, 2018). Markogintzaren *hedatze* horren bitartez, ordura arte ezker abertzalearen erreferentziazko diskurtsoan lehen lerroan egon ez ziren hainbat gai (egoera sozioekonomikoa, ekologismoa...) baina haren azken helburuarekin lerrokagarriak zirenak (autodeterminazioa), bere ardatz bihurtu nahi izan ziren eskaera edo sektore berriak diskurtsiboki barnebilduz eta lehiaren terminoak zabalduz. Lehiatzaileen esparrua zabaltzeko ahalegin hori, ordea, era katramilatsuan garatu zen; hainbatetan, hitzaren (markogintza eraberritua) eta ekintzaren (protestaldiaren erradikalizazioa) artean *disonantzia* nagusituz.

13. Mobilizazioen kasuan, datuak Barne Ministerioak osatutako urtekarietatik aterata daude, eta kale-erasoen kasuan, *Egin* egunkariaren urtekarietatik. Errepresioari lotutako mobilizazioen kasuan, Barne Ministerioak «Apoyo a ETA» lerroburu zabalaren azpian bildutakoak leudeke, «babes» horren barruan atxiloteten salaketak, preso ohiei egindako «ongietorriak» edo hildako militanteei egindako omenaldiak barnebiltzen direla argitzen duelarik. Alde horretatik, egokiagoa iruditu zaigu gure izendapena.

14. Esan gabe doa, lan honetan mobilizazio kopuruez ari garela, ez mobilizazio bakoitzak bildutako jende kopuruaz. Alde horretatik, gerta daiteke mobilizazioen deialdi kopurua handia izatea, baina bildutako jende kopurua txikia; eta alderantziz, baina hori frogatzeak bestelako ikerketa bat eskatuko luke.

Ikusten ari garen bezala, ekintza liskartsuaren garapenean autoritateak eta talde lehiatzaileek beren oinarria eta lehiarako gaitasuna zabalduko dituzten bidelagun berriak aurkitu beharko dituzte. Bide horretan, ELA eta LABen arteko elkarlanaren hasierak aldaketa esanguratsuena ekarri zuen. 1980ko hamarkada osoan zehar abertzaletasunaren eremuan ibilbide ezberdinak egindako bi sindikatu hauek elkarlanerako puntuak aurkitzen joan ziren 1990eko hamarkadaren lehen urteetan. Elkarlan hori maila sozioekonomikoan gauzatzen hasi zen, ELA, UGT eta CCOOren arteko aliantza ahultzearekin batera. Hiruko bateratasun horren gainbeheraren jatorrian ELAren eta estatu-mailako sindikatuen arteko desadostasunak aurki genitzake; bai garai horretan gertatzen ari zen krisialdiaren aurrean gobernuek planteatzen zituzten neurriei erantzuteko joera ezberdinagatik, bai bertako esparru sozioekonomikoaren instituzionalizazioan erakutsitako ikuspegi kontrajarriengatik. Lehenengo arrazoiaren kasuan, 1988ko abenduaren 14ko estatu-mailako greba orokorraren «izpiritu oldarkorra»ri segida emateko ezintasunek ELAren eta UGT eta CCOOren arteko distantzia handitu zutelako (Kortabarria, 2015: 72-73). Ez soilik Madrileko Gobernuak planteatutako politikari erantzuteko; garai horretakoa da ELAk Lehendakariak proposatutako Paktu Sozialari emandako «lehen ezezko instituzionala» (Letamendia, 2004. 148). Bigarren arrazoiei dagokienez, ELArentzat onartezina suertatu zen, nagusiki UGTk erabaki sozioekonomikoak zentralizatzeko hartutako jarrera. Izan ere, 1980ko hamarkadan esparru horren instituzionalizazioan emandako urratsak eman eta gero¹⁵, bide horretan geldotze nabarmena gertatu zen. ELAk LABengan bidelagun berria aurkitu zuen euskal esparru sozioekonomikoaren defentsan¹⁶. 1990erako LABek bere ordezkariak sindikala % 13tik gora egonkortua zuen, eta ELAekin gehiengo sindikal berri baterako aukerak zabaldu ziren. Sindikatu abertzaleak bere ordezkagarritasuna balioan jartzeko asmoarekin, 1992ko II. Kongresuan ordura arteko ibilbidearen balantze kritikoa egin eta enpresa-mailako parte-hartzean sakontzeko apustua egin zuen¹⁷. Elkarlan hori enpresetara zabaltzeaz gain, maila instituzionaleko hainbat akordiotan ere isla izan zuen; entzutetsuena langileen etengabeko formakuntzari begirako Hobetuz Fundazioaren sorrerari bide eman ziona, Confebask, Jaurlaritza eta beste sindikatu nagusien arteko adostasunarekin. Zentzu horretan, LABen instituzionalizazioa gertatzen hasi zen bitartean, ELA «kontra-botere» logika batean murgiltzen hasi zen (Letamendia, 2004), bi tradizio kontrajarrietatik zetozen sindikatuen elkarlanerako bidea irekiz.

Elkarlan horren mugari nagusia, ordea, maila politikokoan gauzatu zen, ELAK eta LABek 1995eko Aberri Egunean kaleratutako agiri bateratuaren eskutik.

15. Hainbat erakunde sozioekonomikoren sorrera aipa genezake: Lan Harremanetarako Kontseilua, lan-gatazken bitartekaritzarako egitura (PRECO), Kontseilu Ekonomiko Soziala edota Confebasken sorrera bera.

16. Horren adierazgarri bi sindikatuok 1994ko otsailean Lan Harremanetarako Euskal Esparruaren alde deitutako manifestazioak bildutako milaka pertsonak.

17. 1992ko Kongresuko ponentzietan LABek bere ekintza sindikala «lan zentroaren arazoaren eta ENAMeko “gaiaren” sarreraren artean kulunkatu» zela aitortu zuen, ondorengoa baieztatuz: «LAB irekita egon daiteke, gero egingo ditugun ñabardurekin, “de facto”-zko bide horretan sakontzeko [enpresa-mailako markoen parte-hartzean] baina eskaera posizio argi batetik, langileen eta enpresa batzordeen egungo markoen eskuduntzen mugei salaketatik».

Manifestuaren eduki zehatzetik harago¹⁸, agiri horrek Ajuriaeneko Itunak finkatutako aurkaritza-egituraren lehen lerroa leherrarazten zuen, ordura arte ENAMi ezarritako bazterketa apurtuz eta elkarlanerako bide berri bat zabalduz. Horren eragina bi sindikatu hauen arteko ekimen bateratutik harago zihoan, abertzaletasunaren baitako bi familia politiko nagusien arteko artekaritzari bide eman ziezaiokeen heinean. Artekaritzak «deslotuak zeuden gune sozialen arteko lotura» errazten du, zeinak «bien arteko edota hirugarren batekin harremanetan bitartekaritza-lana egiten duen» (MTT, 2005: 157). Horren erakusgarri zehatza, besteak beste, 1997an HBren Mahai Nazionalaren espetxeratzeari erantzuteko bi sindikatuok proposatutako mobilizazioak EAJ, EA edota EBren aldetik jasotako ezohiko erantzun positiboa (Kortabarria, 2015: 202), ordura arte batera mobilizatu gabeko indarrak kalera atera behar zituen¹⁹. Gerora etorriko ziren eragile ezberdinen arteko akordioetan aitzindarritza-rolaz gain, mekanismo horrek dinamika politikoa era berri batean kokatzeko funtzioa ere bete zuen. Izan ere, burujabetza edo autogobernuan aurrera egiteko ordura arte nagusi izandako bi estrategien (autonomista eta hausturazalea) mugak geroz eta agerikoagoak ziren; izan Estatutuan jasotako kompetentzien eskualdatzeak ezagututako geldialdiagatik, izan Estatuko Gobernua mahai baten bueltan eserarazteko baliatutako protestaldiaren erradikalizazioak orduko posizioak nabarmen gotortu eta sistemaren itxiera erraztu zuelako. Kale itsu bikoitz horretatik ateratzeko, ELA eta LABen arteko elkarlanak burujabetzaren aldeko indarren batuketan oinarritutako ikuspegi berri bat eskaini zuen.

Difusioa eta artekaritza liskarraldi handietan uztartuta agertu ohi badira ere, eskala-aldaketaren izaeran desberdintasun handiak egongo dira, segun eta bietako zein nagusitzen den. Are gehiago, gurean hainbatetan bi mekanismo horien arteko gatazka ere zabaldu zen; batez ere, protestarako bitarteko erradikalen difusioak artekaritzaren bitartez abertzaletasunaren bi familien arteko *konbergentziaren* garapena baldintzatzen zuela agerian gelditzen zenean. MTTk artekaritzak izan ohi duen eragin sakonagoa nabarmendu dute, lehenengoaren eragin-eremua eskala mugatuago baten barruan mantendu ohi delako eta bigarrenak sektore ezberdinen arteko harremanak ehuntzea ekarri ohi duelako (MTT, 2005: 368). Tesi horrekin bat eginez, borroka politikoaren mugak «elite»en arteko norgehiagokatik harago (ETA-Gobernua) zabaldu nahi dituen mugimenduarentzat funtsezkoa izango da eskaera ezberdinak prozesu liskartsura inkorporatzea. Hori ere izango baita protesta-zikloaren pluralismoaren eta demokratizazioaren erakusle.

18. Ezin dugu oharkabean pasatzen utzi sindikatu bakoitzak bestearen jatorrizko diskurtsora hurbiltzeko egindako ahalegina; ELA, ENAMen diskurtoaren erdigunean kokatutako autodeterminazio-eskubidearen ukapenaren salaketara hurbildu zen heinean, baina aldi berean, LABek, markoaren ohiko salaketaz harago, gai soziolaboralen «eskuduntzen berehalako transferentzia instituzio autonomikoetara» aldarrikatu zuen heinean.

19. Abenduaren 13an egin behar zen manifestazioa bertan behera gelditu zen bi egun lehenago ETAk Jose Luis Caso PPko zinegotziaren aurka egindako atentatuaren ondorioz; artekaritza horrek gatazkan inplikaturako sektore guztiak barnebildu ez izanaren erakusle bazena.

3.2. Kategorien (ber)osaketa: soberanistak eta konstituzionalistak

Arestian ikusi dugun bezala, 1995etik 1997ra doan hirurtekoan gertatutako *eskala-aldaketa* aukera eta mehatxuen atribuzioaren mekanismoari lotuta agertu zen. Ez bakarrik hainbat aukera/mehatxuren atribuzioak berari bide eman ziolako, baizik eta eskala-aldaketak berak aukera eta mehatxu berrien esleipena erraztu zuelako. Horiek arrapaladan, espiral moduan, gertatzen direnean, posible irudikatzen denaren aukera berriak mahaigaineratzen dira, eta ondorioz, eragilean aukeraketa estrategikoak aldatu (MTT, 2005: 135). Bata bestearen atzetik kateatu ziren aldaketa horiek, elkarri lotuta agertzen ziren bi mailatan gertatu ziren: autogobernuan eta bakegintzan, hain zuzen. Lehenengoari dagokionez, esparru sozioekonomikoaren instituzionalizazioaren geldotzearekin azaldu bezala, maila politikoan ere, Gernikako Estatutuaren eskumenen transferentzia 1980ko hamarkadaren bukaeratik erabat motelduta zegoen. Felipe Gonzalezen gobernuak 1992an bultzatutako Paktu Autonomikoek EAJren haserrea piztu zuten, «bide motel»eko autonomien eskuduntzak «bide azkar»rekoekin parekatu nahi izan zituen heinean. Egoera horren aurrean, 1993ko uztailan Eusko Legebiltzarrak transferitu gabeko 54 eskuduntzen zerrenda («Zubia txostena»²⁰) bidali zion eratu berria zen Espainiako Gobernuari. Horrek bederlatzi eskumen berri esleitu zizkion, baina bat bera ere esangura handikoa²¹. 1994ko hauteskunde autonomikoak egin eta gero, EAJren eta PSOE-EEren arteko gobernu-akordioak legegintzaldi horretan «Estatutuaren garapena bururaino» eramateko konpromisoa jaso zuen. Horretarako, akordioa sinatu eta sei hilabetera transferitu gabe zeuden «eskumenen preferentziazko ordenua finkatze aldera, negoziazioaren lehentasunak» eta «irizpide politikoak eta eskualdatzeen balorazio ekonomikoetarako printzipio espezifikoak» ezartzeko ikerketa berri bat egitea adostu zuten. Ikerketa egin zen; baita Legebiltzarreko mahaiak 1995eko irailaren 19an bide eman ere. Baina horrek ez zuen eskuduntza berrien transferentzian itzulpen zehatzik izan. PSOEren gobernuarekin autogobernuaren garapenari begira sortutako blokeo horretan, ustelkeria eta gerra zikinaren inguruko eskandaluak tarteko, 1996ko Hauteskunde Orokorrek PPK irabazi eta CiU eta EAJrekin inbestidura-akordioak erdietsi zituen²². EAJk lortutakoaren artean, Aznarren karguhartzearen alde bozka ematearen truke, Estatutuaren erabateko garapenerako konpromisoa hitzartu zen²³. Adostasunerako giro horrek, ordea, ez zuen asko iraun. 1997ko udazkenean Sabino Arana Fundazioak antolatutako ekitaldi batean, orduko Ekonomiako ministroa zen Rodrigo Ratok Gizarte Segurantzaren eskumena inoiz ez zela transferitua izango baieztatu zuen. Ordurako, aldiz, jeltzaleen artean baziren autogobernuaren garapenean Estatutuaren garapenez haragoko urratsak eman

20. Izen horrekin ezaguna egin zen, Joseba Zubia, Ardanzen Lehendakaritza sailburuaren egiletzatik.

21. Tartean Bitarteko eta Ustiapen Hidraulikoak, Marina Zibileko Goi Ikasketak, lan-elkarte anonimoak, itsas kirol-ikasketak, instalazio erradioaktiboen ingurukoak, interes orokorrekoak ez diren portuetako zama-lanak, eskola profesionalak, komunikabide sozialak edota nekazari-kalitate eta iruzurraren aurkako defentsa («Transferitu gabeko eskuduntzen negoziazioaren lehentasunen inguruko txostena»; Eusko Jaurlaritza, 2001).

22. Hauteskundeetan lortutako emaitzak tarteko (PPK 156 eserleku, CiUk 16, EAJk 5 eta CCk 4) EAJrekin lortutako hitzarmena ez zen horren erabakigarria izango Estatuko gobernagarritasunari begira.

23. Baita Kontzertu Ekonomikoaren atal batzuen eguneraketa, Gerra Zibilean jeltzaleei atzemandako ondasunak itzultzea eta okupatutako langileen Etengabeko Formakuntzarako finantzaketa ere.

behar zirela aldarrikatzen zuten ahots esanguratsuak²⁴. Ildo horretako adierazpenak ugaritzen joan ziren bestelako eremuetan ere, garai horretakoa delarik ELAren Estatutuaren *heriotza* aldarrikatu zuen adierazpen sonatua²⁵. Sajidek (2020) aipatu bezala, *bidegabekerien ezarpenaren* mekanismoa funtsezkoa izango da ekintza kolektiboaren gorakadarako, eta Estatuko gobernu ezberdinek autogobernuaren eremuan emandako hitzaren ez-betetzea horren pizgarria izan zen.

Baina ez ziren Rato ministroaren adierazpenak izan autogobernuan eman zitekeen geldialdiren alarmak piztu zituen gai bakarra. Aipatutako eskala-aldaketan eman zen protestaldiaren erradikalizazioak bere isla izan zuen ETAren ekintzetan ere, tartean estatu-mailako alderdietako zinegotzien aurkako erasoei bide emanaz. 1997ko uztailan Miguel Angel Blanco Ermuko PPko zinegotziaren bahiketak eta ondorengo hilketak zabalduak erantzunak, ENAMen aurkako jazarpena ez ezik, euskal nazionalismoaren aurkako mehatxu moduan ere irudikatua izan zen abertza-letasunaren hainbat eremutan. Hurrengo urtean egin behar ziren hauteskunde autonomikoen bezperetan, PP eta PSOEn arteko lerratzea sendotu eta Jaurlaritzan balizko aldaketarako aukera zabaldu zen. Alde horretatik, euskal politikagintzak hurrengo urteetan alderantzizko norabidea izango zuten bi olatu «kontra-sistemiko»-en artean nabigatu behar izan zuen; batetik, burujabetzaren ikuspegiatik sistemari gainezka egin nahi izan ziona; eta bestetik, deszentralizazioa mehetu eta 78an sistema legitimatzeko eraikitako leialtasunak eraldatu nahi izan zituena.

Bakegintzaren eremuan ere ordura arte mantendutako diskurtso eta estrategien mugak bistakoak ziren. 1995etik aurrera Ajuriaeneko Itunaren sinatzaileen arteko tirabirak are agerikoagoak egin ziren. Urte horretako urtarilean jada, Mahaiaren urteko lehen bilkura egin eta gero, Xabier Arzalluzek «gauzak beste modu batera egiteko»²⁶ aukera publikoki planteatu zuen. Baina Itunaren barne-orekak ez ziren errazak eta ordura arte horren era hertsian gotortutako lerratzeak deseraikitzen hasteak denbora bat eskatu zuen²⁷. 1997ko otsailan Lehendakariak «Mahaiaren bigarren faseari heltzeko» konpromisoa hartu zuen. Bide horretan, 1998ko martxoan eztabaidarako proposamena aurkeztu zien alderdi sinatzaileei, gerora «Ardanza Plana» izenez ezaguna egin zena. Hamarkada osoan zehar indartutako markogintza antiterrorista

24. Juan Mari Ollora horietako ezagunetakoa izan daiteke. Ekonomista eta politikari gasteiztarra, Arabako ahaldun nagusia 1983-1987 urteen artean eta Eusko Legebiltzarreko parlamentaria; baita 1992an zehar EAJren eta HBren artean izandako hartu-emanetan ordezkarria lehenengoan aldetik, Joseba Egibar eta Gorka Agirrerekin batera. Haren tesien azalpenerako ikusi haren egiletza duen *Una vía hacia la paz* (1996) liburua.

25. 1997ko urriaren 18an Gernikan egindako ekitaldia hartu izan da ELAK autonomismotik burujabetzara emandako bilakaeraren ikur nagusietakoa. Jose Elorrietak alderdi eta eragile abertzale nagusien ordezkarien aurrean egindako interbentzioak markatu zuen ekitaldiaren mamia. Idazkari nagusiaren diagnostikoak ez zuen interpretazio ezberdinetarako tarterik utzi: «Estatutuaren bidea bukatu da (...). 18 urtez itxoin dugu Estatutua bete dadin. 18 urtez adarra jo digute. Pazientzia itzela izan dugu, baina muga guztiak gainditu dituzte eta amaitu dira koplak»; «Estatutua itun politikoa zen, batik bat, eta txiki-txiki egin dute»; «Estatutua hilda dago, zentralistek hil dute» sententziatu zuen (Kortabarria, 2015: 184-189).


26. *Diario Vasco*, 1995-02-01.

27. 1995eko ekainean Lehendakariak Itunaren alderdi sinatzaileei «Mahaia arazo bezala» irudikatzen zuen dokumentua igorri zien, ordura arteko batasuna berreraikitzeke asmoarekin. Hurrengo hilabeteetan egindako bilereak koiunturaren irakurketa bateratuak egiteaz harago, berritasun gutxi eman zuten (Sierra, 2018: 485).

berrikusiz, Lehendakariak oinarrizko premisa batzuen gaineko irakurketa planteatu zuen. Haren ustez ETAK ez zion «porrot polizial» huts baten ondorioz borroka armatuari uko egingo. Era berean, HB «sistema demokratikoaren ekintza politikora ez zen behartutako edo berezko “konbertsio” moduko batengatik barneratuko». Zentzu horretan, Ardanzaren iritziz, ezker abertzaleak ez zuen «ezeren truke» Konstituzioa eta Estatutua onartuko. Alde horretatik, ETAREN «porrot polizial»ari uko egin behar bazitzaion, ezker abertzalearen «porrot politikoa» ere baztertu beharko zen. Bigarren fase horren mamia jatorrizko akordioak 10. puntuari jasotzen zuen biolentziaren amaiera elkarrizketatuaren inguruko eztabaidan zegoen. Ordurako, aldiz, gai horren gainean alderdi sinatzaileen arteko desadostasunak agerikoak ziren. Popularrek gogor kritikatu zuten haren eduki «nazionalista». PSOEk jarrera malguagoa erakutsi arren, posizio propiorik ez zuen bilatu lehenengoekin lerrotuz. HBk dokumentuaren azken balorazioa bere militanteen eskuetan utzi bazuen ere, gatazkaren konponbideak politikoa izan behar zuela nabarmentzea balioan jarri zuen. ELAK eta LABek balorazioa bateratua egin nahi izan zuten, dokumentuak izan zitzaizkeen gabezietan sakondu gabe.

Gorago aipatu bezala, *aukera eta mehatxuen espiralak* hilabete gutxi batzuk lehenago posible irudika zitekeenaren ortzi-muga erabat eraldatu zuen; Ajuriaeneko Itunaren bueltan gorpuztutako «demokrata eta biolento»en inguruko lerrotzetik, Lizarra-Garaziko Akordioak finkatutako «soberanista eta konstituzionalisten» artekora. Izan ere, fisikaren eremuan bezala, espiralaren indar zentrifugoaren ezaugarrietako bat izango da zentroa okupatzen duten indarrak (EAJ eta PSOE-EE) muturretatik gertuago kokatzen diren indarretara erakartzea, kategoria politiko berriak sortuz edota zeudenak eguneratuz.

Aliantza zaharrak atzean utzi eta berriak eraikitzen hasten diren bitarte horretan, *aktore berrien osaketaren* mekanismoarekin aurkituko gara, liskarraldien areagotzean agertu ohi den bigarren prozesu sendo bezala. Zentzu horretan, subiranismoaren kategoriaren osaketan *nortasunaren eraikuntzarekin* lotutako mekanismoak presente egongo dira. Horien artean, jada aipatutako artekaritzaz gain, MTTk *jabetza soziala* edota *ekintza berritzaileak* nabarmenduko dituzte.



2. irudia. Aktore-osaketen irudia Lizarra-Garaziko prozesuan.


Lehenengoaren bitartez ekintzaileek aurretik existitzen zen «antolaketa-euskarri bat baliatu» beharko dute lehiarako tresna bihurtuz (MTT, 2005: 51). Kasu horretan, autonomismoaren eskutik garatutako instituzionalizazioak (zentsurik zabalenean) osatuko zuen ezker abertzaleak lehiarako baliatu nahi izan zuen euskarri hori, protestaldiaren garapenaren ikuspegitik eskaintzen zituen aukerengatik. Horren adibidetzat har liteke 1998ko hauteskunde autonomikoak egin eta gero EAJk eta EAK gobernagarritasunari begira Euskal Herritarrok-ekin lortutako legegintzaldi-akordioa²⁸. *Ekintza berritzaileak*, berriz, protestarako errepertorioaren hainbat molde erabat alboratu ez bazituen ere, lehiarako forma ezberdinei bide eman zien. Batetik, ezker abertzalearen parte-hartze instituzionalaren zabaltzearen eskutik, eta bestetik, autonomismotik zetozen eragileentzat konbentzionalak ez ziren politikagintzarako forma berriak planteatuz; udal-hautetsien plataforman (Udalbiltza) edota presoen eskubideen aldeko bilguneetan (Batera), esaterako. Baina subiranismoaren kategoria-osaketaren ikur nagusia 1998ko irailaren 12an sinatutako Lizarrako Akordioa²⁹ bilakatu zen. Elkarreraginezko prozesu hauetan norberaren identitatea zedarritzen duten mugak etengabe negoziatzen diren, jatorrizko kategorien (autonomismoa edota hausturazaletasuna) eta sortu nahi denaren (subiranismoa) arteko tentsioa iraunkorra izanik. Zentzu horretan, hegemonia politikoa lehiatu nahiko duen identifikazio politiko berriaren osaketan alde ezberdinek kontzesioak egin beharko dituzte. Betiere, gehiegizko esku-zabaltasunak besteak norbera irenstera eraman dezakeela argi izanik, baina gehiegizko zurruntasunak ere kategoria berriei bide emango ez diela jakinik. Prozesu hauek konplexuak izaten dira; batez ere gurean bezala identifikazioak errotuta badaude, horiek aldatzeko erresistentziak handiak izanik, eta ondorioz, nortasunaren aldaketa-prozesuak ere mugatuak izaten dira.

3.3. Blokeen polarizazioa eta subiranismoaren baitako lehia

Gertakarien bilakaera arrapaladan gertatzen ari zen egoera horretan, zaharberitutako kategorien (soberanistak eta konstituzionalistak) arteko *polarizazioa* ekidinezina bilakatu zen. Polarizazioak gertaera liskartsu batean presente dauden aldarrikatzaileen arteko espazioaren zabalpena eta aktore moderatuenean mutur baterako grabitazioa eragiten du. Horrek zentro moderatua hutsik uzten du, aurretik eratuta zeuden koalizioen berrosaketa ezinduz eta etorkizuneko koalizio berriei bideak zabalduz (MTT, 2005: 357). Baina gurean politikaren polarizazioa ez zen fenomeno berria izan. Berritasuna, prozesu horri forma ematen zioten bi mutur edo poloen eraketan zetzan; edo beste modu batera esanda, abertzaletasunaren eremu batzuetan hainbatetan amestutako *Maltzagaren* metafora gauzatzean.

28. Azken hauek politika publikoetan eragin nabarmena lortu zuten, hauek bultzatutako «Nazio Eraikuntza»-ren estrategian identifikatutako lehentasunezko arloetan konpromiso zehatzak erdietsiz: euskara eta euskal kulturari lotuta administrazioaren eremu ezberdinetako euskalduntze-planak, enplegua sustatzeari begirakoak (Hobetuz, etorkizuneko Euskal Enplegu Zerbitzua...) edota lurralde-artikulazioari zegozkionak. Funtsean, batzuentzat, antolaketa-euskarri batzuk «protestaldira gehitzen» diren bitartean, besteentzat, eskaera batzuk agenda politikora inkorporatzen dira. Hori baita, modu batean edo bestean adierazita, demokratizazioaren funtsa, araututako eta arautu gabeko politikaren arteko harremanaren zabalpena.

29. Urriaren 2an sinatzaileek Donibane-Garazin aurkeztu eta Lizarra-Garaziko Akordioaren izenarekin ezaguna egin zen.



3. irudia. Polarizazioaren irudia.

MTTk polarizazioaren prozesu sendoaren azalpenerako baliatutako irudia gurera ekarriz, arestian azaldutako aukera eta mehatxuen espirala koka dezakegu prozesuaren goiko partean. Horien kateaketa, jada azaldutako artekaritza eta kategoria-osaketarekin batera, *lehiaren* mekanismoari lotuta agertu ohi da. Zentzu horretan, lehenengo momentu batean desafio hau subiranismoaren eta konstituzionalismoaren kategorien artean era nabarmenagoan gertatu bazen ere, gerora burujabetzaren aldeko indarren arteko barne-lehiara ere zabaldu zen. Azken horren (ber)aktibazioa 1999ko udan EAJ, EA eta ETAREN artean izandako hartu-emanetan agerian gelditutako desadostasunetan koka daiteke. Aurreko urtean burujabetzaren garapenari begira hartutako konpromisoek bizi zuten *impassearen* aurrean, ETAK Euskal Herri mailako hauteskunde konstituziogile batzuk abiapuntu izango zituen «prozesu eratzaille»-rako proposamena luzatu zien EAJ eta EAri. Su-etenaren luzapena ez ezik, borroka armatuaren amaieraren aukera ere jasotako erantzunaren baitan utziz. EAJk proposamena «ameskeria»tzat eta «utopiko»tzat hartu eta *alde erradikalaren* mekanismoa aktibatzen saiatu zen, HBren parte-hartzea eskatuz bilera horietan. Mekanismo horren arabera, alde bateko sektore ezberdinen kontraesanak areagotzearen ondorioz (ETA-HB) edota muturreko sektoreen erradikalizazioaren ondorioz, gertuen soma zitezkeen alde ezberdinetako sektoreek (EAJ eta HB) hurbiltzera joko lukete. ENAMen baitako deslerrotze-saiakera, ordea, antzua suertatu zen. Erakunde armatuak planteatzen zuten prozesu konstituziogilearen aurrean, alderdi jeltzaleak «sei herrialdeetako hiritarrek gauzatuko duten prozesu politiko eta soziala» kontra-proposatu zion. Planteamenduaren «lausotasuna» eta konpromiso berrietarako gogo falta argudio hartuta, azaroaren 28an ETAK publiko egin zuen su-etena bertan behera uzteko erabakia.

Mende-aldaketarekin batera, PPK eta PSOEek sinatutako «Askatasunen eta Terrorismoaren aurkako Akordioak», aldiz, lehia politikoa hiru aldeen arteko norgehiagokatik bien artekora eraman nahi izan zuen berriro. Baina ez Ajuriaeneko Itunak planteatu zuen «demokrata eta biolento»-en arteko aliantza/aurkaritza egiturara, baizik eta onargarritasun sistemikoaren langa urrats bat urrutiago finkatuz. Horrela, *objektu-aldaketa* mekanismoaren eskutik, ETAREN kontrako batasuna egon zen tokian, Konstituzioaren onarpena jarri nahi izan zen. Objektu-aldaketak aldarrikatzen

denaren jomugaren aldaketa adierazten du eta *erasoen orokortzearen* mekanismoari lotuta agertu ohi da. Zentzu horretan, Ajuriaeneko Itunak finkatutako «demokrata eta biolento»-en *frame*-tik (abertzaletasunaren zati bat legitimatzen zuena), hurrengo urteetan «Dena ETA da» markoa indartzeko saiakera nabarmena bultzatu zen (abertzaletasunaren bestelako eremu zabalak zilegitasunik gabe utzi nahian). Termino horietan planteatu zituen konstituzionalismoak 2001eko hauteskunde autonomikoak; etortzeaz zen protestaldiaren erradikalizazio berri baten aurrean, inoiz baino gertuago ikusi baitzuen gobernu autonomikoa eskuratzeko aukera³⁰. Balizko aldaketa horrek, gobernuan leudeken alderdien txandakatzeaz harago, Trantsizioan eraikitako «leialtasun konpartituen logika plurala» (Letamendia, 2001) hankaz gora jarriko zukeen, eta alde horretatik, garai horretan periferietako alderdi nazionalista nagusiak zentroko alderdi nagusiekin adostutako instituzionalizazio- eta legitimazio-joko bikoitza: zentrotik periferiara, botere politikoaren deszentralizazioa instituzionalizatuz eta indar nazionalista sistemikoak horren lidergorako legitimatuz; eta periferiatik zentrora, eraturako sistema politiko berria periferian legitimatuz eta bertan instituzionalizatuz.


4. Ondorioak

1990eko hamarkadaren erdialderako, Trantsizioan finkatutako sistema politikoak burutu gabe utzitako bi eginkizun nagusietakoak bururaino eramateko baliatutako estrategien mugak agerikoak ziren burujabetzaren aldeko hainbat sektoreen begietan; euskal autogobernuaren garapena, Gernikako Estatutuaren bidez; eta sistema politiko berriaren zilegitasuna kolokan jartzen zuen sektore politikoaren indargabetzea, Ajuriaeneko Itunaren bidez. Batetik, Estatutuak jasotako eskuduntzen transferentziak geldialdi nabarmena ezagutu zuen 1980ko hamarkadaz gero. Bestetik, Ajuriaeneko Mahaiak finkatutako terrorismoaren aurkako «irrotasunaren estrategiak» gabezia handiak erakutsi zituen, garai horretako protestaldiaren erradikalizazioari aurre egin eta hauteskunde-prozesu ezberdinetan % 15eko oinarri sozialari eusten zion mugimendua indargabetez. Baina ez ziren izan indar sistemikoek baliatutako estrategiak agorpen-zantzuak erakutsi zituzten bakarrak. Aldaketa-prozesua «elite»-en arteko (ETA-Gobernua) negoziazioak eman zezakeenera mugatzen zuen strategiaren ezintasunak ere bistakoak ziren, protesta-mugimenduaren funtzioa betetzen zuen sektore politiko eta sozialaren berregokitzea eskatuz.

Agortze hauetan liskarraldien areagotzean ohikoak izaten diren hiru prozesu sendoek eragin zuzena izan zuten. Lehenik, protestaldiaren *erradikalizazio* eta *difusioaren* bidez gertatutako *eskala-aldaketaren* eskutik, mobilizazioen gordaldian edo kale-erasoen ugaltzean forma hartu zuena. Baina baita, autonomismotik zetozen sektoreak bereizgarri propioekin protestaldira inkorporatuz (ELA) eta abertzaletasunaren bi familien arteko elkarlana erraztuko zuen koalizioak osatuz ere, ELAk eta LABek betetako *artekaritza-funtzioarekin* ikusi bezala. Eskala-aldaketaren

30. Hauteskunde motaren arabera bozkaren zentzua asko aldatu ohi bada ere, kontuan hartu behar da 2000. urteko Gorteetarako hauteskundeetan, Euskal Herritarrok-ek abstentziora eginda, indar konstituzionalistek lehen aldiz burujabetzaren aldeko indarrak aurreratu eta ia 100.000 bozka atera zizkietela. EAJK 24.000 boto eskas atera zizkion bigarren indarra izandako PPri.

parte diren bi mekanismo horiek ezker abertzalearen isolatze- eta indargabetze-estrategiaren mugak agerian utzi bazituzten ere, era lehiatsu eta kontraesankorreen elkarrekin bizi behar izan zuten, eta hainbatetan protestaren gogortzeak aldaketa-prozesua eskala zabalago batera iristea nabarmen zaildu zuen.



4. irudia: Mekanismo eta prozesuen implementazioa «Lizarra-Garazi»ko kasuan.

Ekintza kolektiboaren areagotzearen ondorioz, aukera eta mehatxu hauek arrapaladan esleitzen hasi ziren, nagusiki aurretik indarrean zeuden koalizioak indargabetuz eta eztabaida politikoaren markoa ezartzen zuten *kategoriak (ber)osatuz*. Identifikazio politikoaren berreraikuntza horretan, ordura arte aktore nagusientzat ezezagunak ziren *ekintza berritzaileak* garatzen hasi ziren. Batetik, ezker abertzaleak politika publikoetan eragiteko gaitasun berria erakutsiz; eta bestetik, autonomismotik zetozen eragileek ohiko jarduera instituzionaletik haragoko urratsak emanez. Prozesu horrek osatuko luke demokratizazioaren ezaugarri nagusietako bat; momentu batera arte agenda politikotik kanpo egon diren eskaerak (edo horietako batzuk, gutxienez) sistemak bere egiten dituenean, bere orube demokratikoa zabalduz. Giugni-ren (1998: vi) arabera, aldiz, demokratizazioak eskubide berri eta botere-transferentzia maila bat eskatuko du, aldaketa-prozesuak *egokitzapen demokratiko* hutsean gelditu nahi ez badu.

Aliantza-egituraren berrosatze horrek, ordea, ez zuen sendotasun nahikorik erakutsi, alde ezberdinetako *lehiaren* mekanismoak bere garapen baldintzatuz uzelako. Aldaketa politikoa gauzatu nahi zutenen eta nahi ez zutenen arteko norgehiagokak norabidetu zuen lehen momentu batean ekintza kolektiboaren garapena, eta subiranisten eta konstituzionalisten arteko gatazkak polarizazio-prozesuaren berraktibazioa ekarri zuen. Mekanismo horren presentzia lau hamarkadetan zehar iraun duen protesta-ziklo osoan nabarmena izan bada ere, aztertutako epealdian ekarritako berrikuntza nagusia gorpuztutako aliantza-egitura berrian zetzan. Hain zuzen ere, polarizazioak argibideak ematen dizkigu horren denbora-tarte laburrean gertatu ziren lerrotze eta deslerrotze sakonak ulertzeko; azalduz, protestaldiaren

erradikalizazioak sortutako aukera eta mehatxuen aurrean, momentu batera arte aliatuak izan eta ardatz politikoaren erdiko partean kokatuko indarrek (EAJ eta PSOE) nola aurkitu zituzten ardatz horren ertzetan kokatzen zirenengan bidelagun berriak. Aliantzen berregituratze hori ez zen garrantzi txikiko aldaketa izan. Izan ere, Ajuriaeneko Itunak finkatutako koalizioak iraultzeaz gain, Trantsizioan finkatutako leialtasunen logika eraldatze-bidean jarri zuen: ordura arte zentroarekiko fidelotasuna erakutsitako nazionalismo sistemikoa nazionalismo antisistemikoarekin elkarlanean jarriz, eta zentroa ordezkatzeko zuten estatu-mailako indar politikoak alderantzizko norabideko dinamika kontra-sistemikoa kokatuz. Baita ordura arteko erakundetze-prozesutik kanpo kokatutako indar antisistemikoa instituzionalizazio-bidean jarriz ere; izan Eusko Legebiltzarreko parte-hartzea normalizatzearekin, izan EHk EAJ-EARekin adostutako gobernu-babeserako akordioarekin, izan LABek eremu sozioekonomikoko hainbat erakundetan parte hartzen hastearekin. Horiek guztiak gaur egun ezagutzen dugun dinamika politikoaren aitzindariak dira.

Baina burujabetzaren aldeko indarren artean ere elkarlana hauskorra suertatu zen. Estatuko zein erkidegoetako instituzioek erakutsitako *gaitasun altuek* (Tilly, 2010) aldaketa politikorako aukeraren arrakasta nabarmen mugatzen bazuten ere, bestelako aldagaiak ere aintzat hartu behar dira. Batetik, Olson-en (1965) teoria arrazionalistek iradokitakoaren harira, hauteskunde-emaitzak tarteko, elite autonomistek irabazteko baino galtzeko gehiago zutela antzeman zutelako. Eta bestetik, burujabetzaren aldeko indarren artean garatu beharreko prozesuaren inguruan ikuspegi aski ezberdinak zeudelako. Izan ere, aldaketa bilatzen duten sektoreak helburu-batasunean ez ezik, aldaketa horren nolakotasunean ere ados jarri beharko dira.

Zentzu horretan, MTTk aldaketa politikoa gauzatzeko planteatutako hiru bide nagusien (nazionalismoa, iraultza eta demokratizazioa) arteko norgehiagoka antzeman daiteke desadostasun hauen oinarrian. Gurea bezalako liskarraldi nazionalista zentzu ezberdinetan ulertu izana (iraultzailean ala demokratizatzailean³¹), aldaketa hori bururaino eramateko ezintasunen gako nagusietakoa bihurtu zen, adiera batean edo bestean parte hartu ohi duten mekanismoak ezberdinak izaten baitira. Horrela, haustura bultzatzen duten indarrek logika sistemikoa kokatzen diren eliteen *desertzioa* bilatu, sistemarekiko *deszertifikazioa* bultzatu edota pairatzen den egoerak bertako eliteen *interesetan kalte* nabarmena sortzen duela erakutsi nahi duten bitartean (MTT, 2005: 218-223), aldaketa pausatua bilatzen duten indar demokratizatzaileek beren arreta sektore ezberdinen arteko *konfiantza-sareak* eraikitzean, liskarraldia areagotzean baino areago instituzioetako *politika publikoetan* eragitean, ordura arte bazterrean utzitako sektoreekiko *berdintasun-harremanak* eraikitzean edo aldaketa-prozesuei zilegitasun demokratikoa emango dieten *kontsulta babestuak* bezalako mekanismoetan jarriko dute (MTT, 2005: 295, 305).

31. Kasu honetan, demokratizazioaz ari garenean, aldaketa-prozesu bat bestelako eruedetatik bereizteko baliatu dugun izendapenez ari gara, MTTk proposatutako ereduari jarraituta, bertan mekanismo espezifikoko batzuek parte hartzen dutela nabarmenduz. Izan ere, bestelako ereduak (izan iraultzaileak, izan nazionalistak) ere, prozesuaren mamari dagokionez demokratizazioan aurrera egitea ekar dezakete, Tillyk (2010) planteatutako zentzuan; hau da, sektore berriak prozesu politikoan inorporatu eta haien eskaerak agenda politikoaren parte bilakatuz.

Alde horretatik, aztertutako epealdian mekanismo ezberdin hauek jasotzen dituzten bi ereduak lehia bizian aritu ziren, eta norgehiagoka horrek protestaldiaren atal honen gainbehera markatu zuen. Zentzu horretan, eragile bakoitza zer eredutatik gertuago kokatuko zen familia politikoen banaketa tradizionalaren arabera zehaztea akats nabarmena litzateke, familia bakoitzaren barruko ikuspegi ezberdinak ere agerikoak izan zirelako. Alde horretatik, garai horretan jokoan egon zen aldagairik garrantzitsuenetakoa, batetik, behar bezalako eraginkortasunik erakusten ez zuen bide autonomistaren, eta bestetik, hausturarako indar nahikorik izan ez zuen bide hausturazalearen artean, aldaketa politikoa gauzatzeko burujabetzaren aldeko indarren metaketan oinarritutako ikuspegi berri baten eraikuntza izan baitzen.

5. Bibliografia

- Casanova, I. (2008): *ETA 1958-2008. Medio siglo de historia*, Txalaparta, Tafalla.
- Della Porta, D. eta Diani, M. (2011): *Los movimientos sociales*, Editorial Complutense, Madrid.
- Della Porta, D. eta Rucht, D. (1995): «Left-libertarian Movements in context: a comparison of Italy and West Germany, 1965-1990», in J. Craig eta B. Klandermans (ed.), *The Politics of Social Protest. Comparative perspectives on States and Social Movements*, UCL Press, Londres.
- Diani, M. (2003): «The Terrestrial Emporium of Contentious Knowledge», *Mobilization: An International Journal*, 8(1), 109-112.
- Díez Medrano, J. (1999): *Naciones divididas. Clase, política y nacionalismo en el País Vasco y Cataluña*, Centro de Investigaciones Sociológicas, Madrid.
- Edwards, G. (2014): *Social movements and protest*, Cambridge University Press, Cambridge.
- Giugni, M.C. (1998): «Social Movements and Change: Incorporation, Transformation, and Democratization», in M.G. Giugni, D. McAdam eta Ch. Tilly (ed.), *From Contention to Democracy* (x-xv), Rowman & Littlefield, Oxford.
- Goffman, E. (1974): *Frame Analysis: An Essay on the Organization of Experience*, Harper and Row, New York.
- Gurrutxaga, A. (1985): *El código nacionalista vasco durante el franquismo*, Antrophos, Bartzelona.
- Herri Batasuna (1991): *Urrats Berri* prozesuko txostenak. Lazkaoko Beneditarren Fundazioko artxibategitik aterata.
- Ibarra, P. (1987): *Evolución estratégica de ETA (1963-1987)*, Kriselu, Donostia.
- , (2004): *Nacionalismo. Razón y pasión*, Ariel, Bartzelona.
- KAS (1994): *Txinaurri* txostena. Lazkaoko Beneditarren Fundazioko artxibategitik aterata.
- Koopmans, R. (2003): «A Failed Revolution-But a Worthy Cause», *Mobilization: An International Journal*, (8)1, 116-119.
- Kortabarria, G. (2015): *Gauzak horrela (ere) izan ziren; ELA 1976-2006*, Pamiela, Arre.
- LAB (1992): *III. Biltzarra. Erabakien ponentzia*.
- Letamendia, F. (1994): *Historia del nacionalismo vasco y E.T.A. Introducción a la Historia del País Vasco. ETA en el franquismo (1951-1976)*, R&B, Donostia.
- , (1997): *Juego de espejos*, Trotta, Valladolid.
- , (2001): *Ciencia política alternativa. Su aplicación al País Vasco e Irlanda del Norte*, Fundamentos, Madrid.
- , (2004): *ELA 1976-2003; Sindicalismo de contrapoder*, Manu Robles-Arangiz Institutua, Bilbo.
- Maíz, R. (2007): «Prefacio», in R. Maíz (ed.), *Nación y Literatura en América Latina*, Prometeo, Buenos Aires.

- McAdam, D. (2002): «Movimientos “iniciadores” y “derivados”: procesos de difusión en los ciclos de protesta», in M. Traugot (ed.), *Protesta social. Repertorios y ciclos de la acción colectiva*, Editorial Hacer, Bartzelona.
- , (2003): «“Eehh, What’s Up (with) DOC?” Clarifying the Program», *Mobilization*, 8(1), 126-134.
- McAdam, D. eta Tarrow, S. (2011): «Dynamics Of Contention Ten Years On», *Mobilization: An International Journal*, 16(1), 1-10.
- Mc Adam, D.; Tarrow, S. eta Tilly, C. (2005): *Dinámica de la contienda política*, Editorial Hacer, Bartzelona.
- Oliver, P.E. (2003): «Mechanism of Contention», *Mobilization: An International Journal*, 8(1), 119-122.
- Ollora, J.M. (1996): *Una vía hacia la paz*, Erein, Donostia.
- Olson, M. (1965): *The logic of collective action: Public goods and the theory of groups*, Harvard University Press.
- Pérez-Agote, A. (1984): *La reproducción del nacionalismo: el caso vaco*, Siglo XXI, Madril.
- Rutch, D. (2003): «Overcoming the ‘Classical Model’?», *Mobilization: An International Journal*, 8(1), 112-116.
- Sajid, M. (2020): «Mapping success and failure: A comparative case study of South Asian separatist movements using lenses of contentious politics», *Journal of Political Studies*, 27(1), 73-90.
- Sierra, G. (2018): *Euskal protestaldia eta demokratizazioa. Diskurtsoak eta ekintza kolektiboa «Lizarra-Garaziko» kasuan (1995-2000)* (Doktore-tesia), UPV/EHU, Leioa.
- Snow, D.A.; Benford, R.D.; Burke Rochford, Jr. E. eta Worden, S. (1986): «Frame Alignment Processes, Micromobilization, and Movement Participation», *American Sociological Review*, 51(4), 464-481.
- Tarrow, S. (1997): *El poder en movimiento. Los movimientos sociales, la acción colectiva y la política*, Alianza, Madril.
- , (2003): «Confessions of a Recovering Structuralist», *Mobilization: An International Journal*, 8(1), 134-141.
- Taylor, V. (2003): «Plus ça change, plus c’est la même chose», *Mobilization: An International Journal*, 8(1), 122-126.
- Tilly, Ch. (2010): *Democracia*, Akal, Madril.
- Zubiaga, M. (2008): *Boteretik eraginera: mekanismoak eta prozesuak Leitzarango eta Urbina-Maltzagako liskarretan* (Doktore-tesia), UPV-EHU, Leioa.

